

FUNTSEZKO JARDUERAK

ISLADA laguntza enpresa aktiboa eskaintzeko, areto bat eta bulego bat izango dugu. Horrela, herriko biztanleriari gai ezberdinen inguruan informazioa emango diogu. Izan ere, aretoan txarлак, elkarrizketak, topaketak, formakuntzak eta ekintzak prestatuko ditugu beraientzat, eta bulegoan aldiz, kasu espezifikoak landu eta aholkularitza emango dugu.

Beraz, arazo espezifikoaren inguruko informazioa ere emango dugu.

Gainera, astero gai ezberdin bat jorratuko dugu eta astean zehar horren inguruko ekintzak antolatuko ditugu.

APP-a eta telefonoaren arreta.

Onuradunekin harremana zaintzea .

Gure zerbitzuari buruzko informazioa hedatzea; kartel eta propaganda bidez, APP bidez.

Garapena, plangintza → txarლen eta abarren egutegia, zenbat alditan

Isladaren ordutegi eta egutegiak zehaztuko ditugu jarraian.

Esan bezala, Islada laguntza enpresa aktiboak Lea Artibaiko udalantzako lan egingo du. Gure bulegoak, udal bakoitzak eskainitako bulego eta aretoak izango dira besteak beste.

Gure ordutegia:

Goizez 9:30tik 13:00etara. Bulegoko lanak egingo ditugu. Bakarkako zerbitzuak ere eskainiko ditugu. Aipatu bezala, aholkularitza eta herritarrari bakarkako laguntza emanez.

Arratsdez 16.00tik 20:00etara. Aretoko lanak izango dira, talde handian: txarლak, emanaldiak eta ikastaroak.

Hiruhilabetan behin, islari aditu bat ekarriko dugu gai ezberdinen inguruan hitz egiteko. Aste osoan zehar Lea Artibai zonaldeko herrietan emango ditu hitzaldiak.

Hilean behin, ikastaroak izango dira. IKTen erabilera, josteko ikastaroak, bizikidetzan on bat izateko arau eta eginbeharrak... Gai ezberdinak jorratuz.

Astero, komunikazio ez bortitzean oinarrituko gara; elkarbizitza modu libre eta osainsuntsu batean eraman ahal izateko eta egunerokoan gertatzen diren gatazkak ahalik eta modu egokienean kudeatzeko txarლak izango ditugu.

Zonaldeko egunak hauek izango dira:

Astelehenetan Berriatuko udala

Asteartean Markinako udala

Asteazkenetan Lekeitiko udala

Ostegunetan Ziortza Bolibarko udala

Ostiraletan Ispasterreko udala

Azkenik aipatu, edozein informazio jasotzeko, aurrez aipatutako bezala telefono eta APP bidez ere arreta eskainiko dugu.